

KULTUR

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



 cultura
navarra.es

Reyno de Navarra  Nafarroako Erresuma

2024

ekainak 21 junio
irailak 28 septiembre

Musika eta arteen parentesia

Uda gure bizitzetan parentesia egiten duen urtaroa da.

Uda iritsi eta ikasturtea, kirol-kluben denboraldi ofizialak eta antzoki eta museoek amaitu egiten dira. Garai berri bat irekitzen da, argitasunez, beroz eta kolorez betea, atsedeen hartzeko gonbita egiten duena, ohi-koak ez diren beste jarduera batzuk egiteko, egunerokoak ez diren beste leku batzuetan. Familia eta lagunak oporretara joaten dira, haurtzaroko herrietara edo leku exotikoagoetara, eta une jakin batzuk sortu eta honela galdetzen diogu geure buruari: zer egin dezaket gaur arratsaldean?

Nafarroako Gobernuaren Kultur programak era guztietako proposamen artistikoak eskaintzen ditu, udako etenaldia egiten laguntzarekin batera; hau da, esperientzia kultural erakargarriak bizitzeko aukera ezin hobe. Jazz musika, flamenkoa, pop hiritarra, sustraiko musikak, bluesa, rocka, gregorianoa, dantza garaikidea eta tradizionala, zirkoa, magia, arte plastikoak... denak sartzen dira Nafarroa osoan zehar banatuta dauden 43 egoitzatan. Tamaina guztietako herriek bat egingo dute programarekin: Iza-batik Lapoblacionera, Beratik Buñuelera, Zuñigatik Gazteluberrira, San Adrianetik Garraldara, Nafarroan dagoen edo ekainaren 21etik irailaren 28ra bisitan etorriko den edonork eszenatoki bat izango du inguruan, batez ere Nafarroako baina baita beste erkidego batzuetako eta nazioarteko artistek ere egindako kultur eskaintza ezagutu eta horretaz gozatzeko.

Berritasun gisa, 2024ko edizio honetan, programa bi aste gehiago luzatuko da udako denboraldi osoa betetzeko; era berean,

KULTUR aurreko urteetan baino egoitza gehiagotan izango da, hots, 43 herritan. KULTUR programa Kultura Zuzendaritza Nagusiak-Vianako Printzea Erakundeak antolatzen duen luzeena da, iraupen zein hedadura aldetik.

Programaosatzen amaitzeko, Nafarroako Maria Jimenez Moreno artistaren Basati-Salvaje erakusketa izango da aurten Bertizen. Hain zuzen ere, XVI. eta XVII. mendeetan sorginkeria dela-eta jazarri eta akusatu zituzten emakume nafarren memoria berreskuratu nahi du lan honek, historia berridatziz eta haien figura eta lana naturaren jakintsu moduan ahaldunduz, begirada femenino eta garaikide batetik. Obrak ehun-artearen inguruan garatzen dira, femeninoarekin lotutako praktika tradizionalak aldarrikatzeko tresna gisa. Batzuetan, gainera, beste hizkuntza batzuekin konbinatuko ditu; hala nola, argazkigintza, marrazkigintza, zeramika edo instalazioak, Errealismo Magikotik hurbil dagoen hizkuntza plastikoarekin.

Azkenik, proposamen artistiko horiei gehituko zaie herri askotako turismo-eskaintza erakargarri eta anitza.

Gozatu ibilbideaz hautatutako herrira iritsi bitarte. Bidean ziur oharkabea igarotako paisaiak aurkituko dituzula. Gozatu musikaz, arteaz naturaz, gure herriez... Gozatu artisten lanaren sentsibiltateaz eta gure ondare natural eta historikoaren aberastasunaz.

Gozatu udaz.
Gozatu 2024ko Kultur programaz.

KULTUR

AGENDA 2024



EKAINA



UZTAILA



ABUZTUA



IRAILA

**PROGRAMA
KULTUR**

EKA

OSTIRALA

21

21.00



FITERO

Las Malvas plaza

Javier Lopez Jaso laukotean
Inmarcesible

LARUNBATA

22

21.00



ARTAJONA

Quinta parkea

OSCAR IBÁÑEZ & TRIBO
Da Terra

IGANDEA

23

20.30



GABARDERAL

Frontoia

MAI NERAVE
Llenas de flores

IGANDEA

23

20.00



SAN ADRIÁN

Udaletxeko lorategiak

MOVE QUARTET
Momentum

OSTIRALA

28

20.00



IZABA

Anfiteatroa

KEROBIA
Gora Bizitza

LARUNBATA

29

21.30



MARCILLA

Gazteluko patioa

EN-KANTU

Música y Territorio

IGANDEA

30

20.30



AGOITZ

Institutuko plaza

KONPAINIA LEVELIBULAR

Portamundos

UZI

OSTIRALA

05

20.00



LAPOBLACIÓN

Frontoia

KONPAINIA IDO LOCA

¡Qué circo de mujer!

LARUNBATA

13

18.45



ORREAGA

Itzandegia

Zorongo

Ultreia. Músicas en el Camino

OSTIRALA

19

20.00



DONAMARIA

Jauregia

IÑAKI DIÉGUEZ ETA XABIER LETURIA

Pepito Yanci, beti bizi

LARUNBATA

20

20.00



BERA

Telletxeako lorategiak

XABI ZEBERIO

Pause

IGANDEA

21

20.00



BERBINZANA

Eretas Plaza

KATANGA DUB

Como cosa rara

IGANDEA

21

19.00



ERRONKARI

Frontoia

ZIRIKA ZIRKUS

A toda vela

OSTIRALA

26

21.00



ETXARRI ARANATZ

Kale Nagusia (plaza)

THE TAVERNERS

LARUNBATA

27

21.00



LIZARRA

Los Llanos Kultur Etxeko lorategia

JANUS LESTER

Ez gaitzala loak harrapatu

Que no nos coja el sueño

LARUNBATA

27

12.00



ZUGARRAMURDI

Zugarramurdiko kobazuloak

BAZZKUN PROIEKTUAK

Eguzkilogore; un concierto de jazz mitológico

IGANDEA
28
12.00



LEKUNBERRI

Plaza

GAITA BRASS

Del origen

ABU

OSTIRALA
2
21.00



OTSAGABIA

Blankoa Plaza

TRAVELLIN'BROTHERS

Aniversary Tour

OSTIRALA
2
21.00



RIBAFORADA

Sakana

ALEJO

Diamantes

LARUNBATA
3
19.30



ELIZONDO (BAZTAN)

Plaza

QABALUM

Todo ese ruido

IGANDEA
4
19.30



GARRALDA

Plaza

TXORI ZURI DANTZA TALDEA

IGANDEA

4

21.00



LOS ARCOS

El Coso plaza

ELENA SETIÉN

Moonlit Reveries

OSTIRALA

9

19.30



CASTILLONUEVO

Plaza

MAGO HODEI

El arte de sorprenderte

LARUNBATA

10

20.00



MENDIGORRIA

Foruen plaza

EREL Y KUÑI

IGANDEA

11

20.30



TAFALLA

Arkakusoen plazatxo

GOXUAN SALSA

Urak eginen du bide

OSTIRALA

16

21.00



CORELLA

Martxoak 8 plaza

VANDALIA TRÍO

LARUNBATA

17

20.00



VIANA

San Pedro elizako hondakinak

LED SILHOUETTE

Los perros

IGANDEA

18

19.00



UNTZUE

Frontoia

DANTXALDI DANTZA TALDEA

OSTIRALA

23

20.30



ZANGOZA

Kultur Etxeko lorategia

ANA CRISMÁN

Arpa flamenca

LARUNBATA

24

20.00



LEZAUN

Plaza

KORRONTZI

IGANDEA

25

18.45



LEIREKO MONASTERIOA

San Salvador eliza

LEYRE, MÚSICA Y ESPIRITUALIDAD

OSTIRALA

30

20.00



LODOSA

Espainia plaza pasealekua

MIGUEL JIMÉNEZ

Resiliente

LARUNBATA

31

21.00



FALCES

Foruen plaza

FYRA

Edición limitada

IRA

OSTIRALA

6

21.00



ALTSASU

Foruen plaza

IBIL BEDI

Goldea

LARUNBATA

7

20.30



TUDELA

Alfontso I borrokalaria plaza

HOFE X 4:40

Amorrúa

IGANDEA

8

20.00



LEITZA

Herriko Enparantza

ANARI

Giza Zarata

OSTIRALA

13

20.00



ARGUEDAS

Aterpearen plaza

JESÚS CARBONELL

Guitarra del herrero

LARUNBATA

14

19.30



UXUE

Doña Leonor plaza

ORTZADAR EUSKAL

FOLKLORE TALDEA

LARUNBATA

21

21:30



BUÑUEL

Zuhaiztia

IBRAHIM KEIVO Y GANI MIRZO & BAND

La ruta de la dignidad

IGANDEA

22

12:00



LIZASO-ORGI

ANR Orgiko basoa

JACK DIATTA & D.J. KAYLF

Kasumaye

OSTIRALA

27

21.00



GARES

Julian Mena plaza

DEMODÉ QUARTET

A kupela

LARUNBATA

28

19.30



ZUÑIGA

Frontoiaren plaza

GREASY

TURISMO- JARDUERAK



ARTAJONA. Ekainak 22, larunbata, 18:30ean. Bodega Reynoko dastaketa-gela · 15€

Ardo-dastaketak eta produktu tipikoen dastaketa

Informazioa eta izen-ematea: bodegareynoartajona@gmail.com

MARCILLA. Ekainak 29, larunbata · 18.00etan · Gaztelua · 3€

Martzillako gaztelua ezagutzeko bisita gidatua + tokiko gozoen dastaketa

Informazioa eta izen-ematea: cultura@marcilla.es

ORREAGA. Uztailak 13, larunbata · 18.00etan · “Lácteos Aspace” instalazioak · Doan

Esnea eta jogurtak fabrikatzeko prozesua ezagutzeko bisita

Informazioa eta izen-ematea: marurtea@aspacenavarra.org

BERA. Uztailak 20, larunbata Zalain jatetxeko aparkalekua 18.00

Erleak, funtzioa eta eztia. Ezti dastaketa

Informazioa eta izen-ematea: hbmugitz@gmail.com

ZUGARRAMURDI. Uztailak 27, larunbata Azketa Frontoia · 9.00- 20 €

Ibilaldi zirkularra + Etxelekua gaztandegia

Informazioa eta izen-ematea: info@orbela-beintza.com

ELIZONDO. Abuztuak 3 · Jaime Urrutia 20 · 17.00 · 5 €

Herria bisitatzea

Informazioa eta izen-ematea: baztantours@gmail.com

MENDIGORRIA. Abuztuak 10 · Andelosko Arkeologia Museoa · 11:00, 12:30, 17:00 eta 18:30 · 1-5,60€

Bisita gidatua Andelosko erromatar hirira

Informazioa eta izen-ematea: www.palaciorealolite.com



LEZAUN. Abuztuak 24 · 11.55ean · Bus geltokia · 30€ / 12,50€ (- 12 urte)

Etxalderako bisita, dastaketa gaztandegian eta bazkaria

Informazioa eta izen-ematea: www.queserialdaia.net

LEZAUN. Abuztuak 24 · 11.00etan · Basabere · 38€ / 25€ (haurrak)

Granjarako bisita eta harraparien hegaldiak + Basabere pintxoa + ludoteka + bazkaria

Informazioa eta izen-ematea: info@basabere.com

LEZAUN. Abuztuak 24 · 18.00etan · Basabere · 15€ / 11€ (haurrak)

Animalien granjarako bisita eta harraparien hegaldiak + Basabere pintxoa

Informazioa eta izen-ematea: info@basabere.com

FALCES. Abuztuak 31 · 19:00etan · Jesusen Bihotza kalea 6, behea · 15€ eta botila bat olio opari

“Jesus Aranda” olio ekologiko eta biodinamikoaren dastaketa

Informazioa eta izen-ematea: info@ecologicosaranda.com

TUDELA. Irailak 7, larunbata, · 19.00etan · TUDELA · 18 Grados (Verjas kalea 16) · 18€

Nafarroako ardo eta gazten dastaketa 18 grados dendarekin

Informazioa eta izen-ematea: info@18grados.com

UXUE. Irailak 14, larunbata, · 10:00etatik 13:30era · Urrutia Etxea · 6€

Ogi-mamiak eta Nafarroako ardo gorria dastatzea Urrutia Etxean

Informazioa eta izen-ematea: info@casaurrutia.net

ZUÑIGA. Irailak 28, larunbata, · 16:00etan · Euskal Herriko Bide Berdea Zuñigan · 45€+BEZa

Ibilbidea bizikletaz Euskal Herriko bide berdean barrena

Informazioa eta izen-ematea: info@urederraebike.com

EKA

Javier Lopez Jaso laukotean

Inmarcesible

"Proiektu-disko moduan egindako nire musika-proposamen berriaren izenburua ("Inmarcesible") hartuta eta Mikel Andueza, Marcelo Escrich eta Dani Lizarraga bezalako musikari handiak bidelagun izanik, musika iragankorreko disko bat sortu da, denboragabea, eta horren ibilbide iradokitzailean, jatorrizko kantuak bilduko dira, batzuk euskal tradizioko

erritmo eta melodietan oinarrituak, eta, aldi berean, mitologia kutsuko abesti herrikoiak (Axuri Beltza, Txoria txori...), jazz modernoaren berezko harmonia, erritmo eta bira melodikoen arabera moldatuak. Ondorioz, jatorrizko soinu sofistikatuak sortuko da, entzule unibertsa hunkitzeko, transmititzeko, kupitzeko helburua duena".

KIDEAK

Javier López Jaso: akordeoia

Mikel Andueza: saxoak

Marcelo Escrich: contrabaxua

Daniel Lizarraga: bateria



Oscar Ibáñez & Tribo

Da Terra

Oscar Ibáñez gaita-jotzaile eta txirula-jotzaile liluragarri galiziarra da. Sus-traietatik abiatuta, mugarik gabeko musika-fusioa egiten du, ikerketaren eta sorkuntzaren erdibidean, eta, horrela, soinu berri eta bakarra lortzen du. Oscar Ibáñez & Tribo zuzeneko banda ibilbide luzeko eta ezaguneko musikari bikainek osatzen dute, Galiziako folk musikaren artista eta talde garrantzitsuenen bandetan parte hartutakoak; tartean, Suso Iglesias (Xabier Diaz, Nova Galega de Danza), akordeoia; Harry.c (Milladoiro), biolina;

Xosé Liz (Lizgairo, Riobó, Tor), bouzoukia; Paco Dicenta (Mercedes Peon), baxua; eta Carlos Castro (Budiño, Fía na Roca), batería eta perkusioa. Talde artistikoa Teresa Gomez zanfonistak (Son de Seu) eta Banda de Gaitas Sueviako gaiteroek osatzen dute.

Talde horrekin 200 kontzertu baino gehiago eman zituen Iberiar Penintsula osoan, Alemanian, Britainian eta Italian, nazioarteko jaialdi garrantzitsuenetako batzuetan parte hartzearekin batera.

Gaur egun, OSCAR IBAÑEZ DA TIERRA ikuskizuna aurkezten ari da. Bertan, haren lan diskografikoetako abesti nabarmenenak errepasatzen ditu; soinu-bidaia dinamiko eta kementsua Galiziako musika tradizionalan barrena, originaltasunez, irudimenez eta sormenez betea. Horren bitartez, mestizaje musikal berritzailea egingo du, ozentasun zelta nagusi izanik.



TURISMO-JARDUERAK

Ardo-dastaketak eta produktu tipikoen dastaketa

Ekainak 22, larunbata, 18:30ean. Bodega Reynoko dastaketa-gela · 15€

Informazioa eta izen-ematea: bodegareynoartajona@gmail.com

Mai Narave

Llenas de flores

"Llenas de flores" Mai Narave artista nafarrak apirilaren amaiera aldera atera duen lehen EParen aurkezpena da. Kantautorearen musika, indie-pop estilokoa, egileak konposatua, interpretatua eta ekoiztua.

Mai Naravek emango duen kontzertu akustikoan, gitarra eta ahotsa izango ditu lagun. Aurkezpen honetan, garrantzitsuak dira bere esperientziak biltzen dituzten bideoak, proiektu globala eta abestien artean konektatua sortzeko.

Mai Narave Nafarroako kantautore gaztea da. Lehen diskoa 8 urterekin idatzi zuen, aitaren kasette zahar batean. On-

doren, musika, zeharkako txirula eta gitarra ikasi ditu. Geroago, Eslovenian eta Iruñean lehen kontzertuak ematen zituen bitartean, musika-ekoizpena ikasi zuen bere konposizioak ekoizteko.

2023. urtearen hasiera aldera, Txile eta Argentinara joan zen, eta, bertan, "Llenas de flores" sortzeko abestietarako inspirazioa aurkitu zuen.



EKA 23 IGANDEA
20.00

SAN ADRIAN
UDALETXEKO LORATEGIAK

**KUL
TUR**
2024

Move Cuartet

Momentum

MOVE, ibilbide sendotuko laukotea, urte askotako dedikazio eta esplorazio bateratuan esperientzia aberatsa eskuratu duen musika-indarra da. "Momentum" proiektu berriak ibilbide hori biltzeaz gain, sustraieratik sortzen den indarra irudikatzen du, gelditzen ez den bultzada, etorkizunera begira ideia berrituak eta etengabe aldatzen den musika-proposamena dituen

Sinbiosi ezin hobean, Borja Barrueta, Alberto Arteta, Javier Callén eta Iñigo Ruiz

de Gordejuelak herri musika garaikidearen abangoardiarantz abiatzen dituzte beren hegoak, eta sustrai sakonak dituzte tradizio jazzistikoan, klasikoan eta folklorikoan.

MOVE hautatua izan da Jazzeñen jotzeko; hau da, nazioarteko programatzaileentzako jazz erakusketan. Herrialdeko 10 jazz-proiektu interesgarrienak aukeratzeko dira musika hori irudikatzeko.



Kerobia

Gora Bizitza

Kerobiak GORA BIZITZA aurkezten du, kantu enblematikoenez eta akustikoko abestiez jositako ikuskizuna, zuzeneko zirrargarri batean.

Bandak data gutxi batzuk eskainiko ditu 2024an Euskal Herrian nahiz Euskal Herritik kanpo. Modu horretan, Kerobia-
ren jarraitzaileek adi egon beharko dute aukera hori ez galtzeko eta taldearekin batera abesteko, haiek esaten duten moduan, "asteroideen antzokian".

Lurrean habitatutako kontinente bakarra Antartika da. Gora Bizitza ikuskizunak

eguzki-sisteman zehar globo espaziale-
tan jarri ziren pertsonen istorioak kontat-
zen ditu. Istorio horren lehen kapitulua
gizakia babestu den globo horietako ba-
tetik jasotako mezuarekin hasten da: "ba
al dago hor norbait?"

KIDEAK

Lur Larraza, gitarra

Carlos Colina, teklatura

Alberto Isaba, baxua

Eneko Reketibate, bateria

Xabier Bandini, ahotsa eta gitarra



En-Kantu

Música y Territorio

En-Kantuk Nafarroako Foru Komunitateko musika tradizionala eskaintzen du, euskaraz eta gaztelaniaz, esentzia melodikoa errespetatuz eta elementu hori ikuspegi klasiko batetik egokituz. Beraz, lurralde bati lotutako proiektua da, baina, aldi berean, En-Kantu taldeak badaki musika beti mugimenduan dagoela eta ez dagoela erreperitorio, eskema erritmiko edo musika-praktikari lotutako funtzio sozial baten jabetzat har daitekeen komunitate bakar bat ere. Hori dela-eta, En-Kantu taldeak beste herrialde edo komunitate batzuetako musiken revival-ak eskaintzen ditu, gure arbasoekin

bizi izan zirenenak (esate baterako, judu sefardiak). En-Kantu taldeak bere kontzertuetan kontuan hartzen du bitartekotza, beharrezkoa baita oroimen indibidual zein kolektiboaren kantuak eskaintzeko. Horrela, ikuskizunean, tradizio musikala batuko du ikerketarekin, estetikarekin eta hain duintasunez zahartzen denak merezi duen maitasunarekin.

KIDEAK

Nerea Erbiti, kantua eta trikitixa

Pello Ruiz, oboea eta kantua

Igor Saenz, biolontxelo

Isaac Irimia, perkusioa

Eduardo Zudaire, gitarra

Marcos Andrés, guitalelea, ukelelea



TURISMO-JARDUERAK

Martzillako gaztelua ezagutzeko bisita gidatua + tokiko gozoen dastaketa

Ekainak 29, larunbata - 18.00etan. - Gaztelua - 3€

Informazioa eta izen-ematea: cultura@marcilla.es

Konpainia LeVeLiBuLaR

Portamundos

2004. urtean, Levelibular Circok bere ateak ireki zituen Cordoban (Argentina). Publikoarekin konektatzeko gaitasunak bereizten ditu, hiri eta herrietako topaguneetarako pentsatutako antzerki-ikuskitzak eta adin guztietako jendearentzako umore handiko antzerki akrobatikoko ikuskizunak eskaintzen baitituzte. Ikuskizunak antzerkiaren, dantzaren eta arte eszenikoen bidez sortzen dira.

20 urte hauetan, Cía Levelibular konpainiak eskaera handia izan du era guztie-

tako ekitaldietan umorea eta alaitasuna jartzeko.

Portamundos ikuskizunak konpainiaren funtsa jasotzeaz gain, dibertsioa agintzen du. Rulo da protagonista (Cristian Gabriel Gutierrez), aktorea, clown-a eta akrobata. 1996az geroztik, lanbide horretan aritzen da, aurkezpenak egiten eta jaialdi konbentzionaletan, mintegietan, ikastaroetan eta tailerretan parte hartzen, Argentinan, Txilen, Ekuadorren, Belgikan, Espainian, Italian eta Kroazian.



UZI

Konpainia Ido Loca

¡Qué circo de mujer!

Ikuskizunaren munduarekin amets egiten duen aktore gazte batek azkenean aukera handia iritsi zaiola uste du. Baina, antzokira iristean, agindutakoa guztiz faltsua dela ohartuko da, eta, egunero, bizimodua ateratzeko, gero eta emanaldi gertagaitzagoak eta barregarriagoak egin beharko ditu. Hala ere, ezerk, ezta errealitateak ere, ez dio eragotziko amets egitea eta beste mundu batzuetan, beste eszenatoki batzuetan... bere burua ikustea. Beste bizitza batean.

Publiko guztiarentzako ikuskizuna da, eta zirkuaren munduari, absurduaren antzerkiari eta antzerki melodramatikoa iruzko keinuak egiten ditu. Inor ez da geratuko interesik gabe. Barre-algarak ziurtatuta daude.

Idoia Lopez Callejas artista nafarra da Ido Loca, diziplina anitzekoa eta nomada naturaz, etengabe ikasten eta eboluzionatzen dena.

Idoia hainbat lekutan bizi izan da, eta lur-globoan zehar bidaiatu du. Haren balentria handienetako bat da Brasil zeharkatzea, iparraldetik hegoaldera, bizikletaz, eta bizimodua herrialde eder horretako plazetan ateratzea, bere musika- eta zirku-artearekin.

Zirku Artea ikasi du Granadako CAU Zirku eta Antzerkiko Nazioarteko Eskolan (Arte Urbanoen Zentroa), eta hainbat ikastaro artistiko egin ditu ezagutza eta trebetasun eszenikoak handitzeko honako hauek bezalako adituekin: Virginia Imaz, Slava Polunin, Alessia Desogus Phillippe Gau-

lier, Anton Valen, David Monge, Pepa Gil, Jesús Jara, Pepa Plana...

Psikologo Psikomotrizista ere bada, lanbide horretan aritu da urte askotan, eta horri lotuta jarraitzen du.



Zorongo

Ultreia. Músicas en el camino

Frantziatik Santiagora bitarteko musika-bidaia da, eta Done Jakue Bidearen eta hango lekuen historiarekin loturiko eraginak eta soinuak biltzen ditu. Berezi ki Nafarroa azpimarratzen du, modu atsegin eta dibulgatibo batean eta publiko guztiarentzat. 2004az geroztik Erdi Aroko kontzertuak egiten ditu ZORONGOk, eta arrakasta handia izaten ari da ikuskizun honekin Nafarroako toki enblematiko eta historikoetan barrena..

Errepertorioaren bidez, Frantziatik Santiagora bitarteko bidaia proposatzen da, bidean eragin eta soinuen mosaiko bat jasoz. Aukeratutako lanak Done Jakue Bidearen historiarekin eta lekuekin lotu-

ta daude: Nafarroa Behereko melodiak, frantses errones anonimoek abestuak; Nafarroako Teobaldo erregearen abestiak; Alfontso X.aren kantigak, Leireko San Virilaren kondairari erreferentzia egiten diotenak; andalustar musika eta musika sefardia, Bideko ibilbideetan denbora eta espazioa partekatu zituzten beste kultur tradizioen erakusgarri. Eta, azkenik, Galiziako melodiak eta Kodex Calixtinokoak.

KIDEAK

Maria Echeverria, ahotsa

Edurne Aizpun, harpa erromanikoa

Urko Ocaña, lautea, gemshorn-a, arku-bihuela eta perkusioa

Ekhi Ocaña, flautak, gemshorn-a eta perkusioa

J.L. Gomez "Koki", saxuak, duduk-a eta perkusioa



TURISMO-JARDUERAK

Esnea eta jogurtak fabrikatzeko prozesua ezagutzeko bisita

Uztailak 13, larunbata · 18.00etan · "Lácteos Aspace" instalazioak · Doan

Informazioa eta izen-ematea: marurtea@aspacenavarra.org

Iñaki Diéguez eta Xabier Leturia

Pepito Yanci, beti bizi

Pepe Yanci lesakarra Euskal Herriko trikitilari eta musikaren erreferentzia nagusietako bat izan da. Haren jaiotetxean aurkitutako maletatxo batean hainbat proiektu sorrarazi dituzten partitura eta dokumentu batzuk aurkitu zituzten; horien artean, Lesakako musika-bandarena, eta musika eta konposizio ezagunenak ezagutzera emateko, partituren liburu bat argitaratu du.

Iñaki Dieguez soinu-joleak eta Xabier Leturia pandero-joleak omenaldi-kontzertu hau sortu dute.

Dieguez (Irun 1973) 9 urterekin hasi zen akordeoia ikasten

A.M. Beliorekin, eta laster nabarmendu zen lehiaketa garrantzitsuetan sariak irabaziz.

Europa osoan eta Estatu Batuetan barrena kontzertuak eman ditu, eta musikari klasiko gisa ibilbide oparoa egin ondoren, musika modernoan oinarritu da.

Xabier Berasaluze "Leturia" (Billabona, Gipuzkoa, 1954) pandero-jolea da. Izen artistikoa Billabonan bera jaiotako Leturia baserritik datorkio. Laurogeiko hamarkadan, Tapia eta Leturia trikitixa bikotea osatu zuten, oso ezaguna urte haietako euskal musikaren giroan. Gaur egun, jada erretiratuta badago ere, honako hau bezalako kolaborazioetan eta Korrontzin ere jotzen du noizbehinka.



Uzt 20 LARUNBATA
20.00

BERA
TELLETXEAKO LORATEGIAK

**KUL
TUR**
2024

Xabi Zeberio

Pause

Intimista, pausatua eta barea, sakona eta era berean lebitatzailea, emozioen ertzak kilimatu eta leuntzen dituen lan biribila da Pause. Atmosferak sortzen dituzten diskoez ari garenean (soinu bandekin gertatu ohi da sarri), amaitu gabe dagoen alboko melodiaren susmoa piztu ohi zaiugu usu: aditz laguntzailea besterik ez ote da musika? Kasu bakan batzuetan, aldiz, delako atmosfera hori urrundu egiten da atrezzo soiletik eta gure arretaren erdigunean ipintzen da: lanbroz ehundutako animo egoera horiek inguratu eta gatibatu egiten gaituzte oharkabea, eta jada ez dugu giro horretatik irten nahi. Horixe da Xabier Zeberioaren lan honen kasua; goiz-albako esnatze baten lurruna, penarik gabeko malenkonia, aireportu mortuko denbora esekia. Datorren

egunari aurre egin edo joandakoari buruz hausnartzeko tenorea dakarten doinuak. Trikimailurik gabeko zirrara.

...Zer pentsa ematen du "nordiko" adjektiboak gure artean azken urteotan egin duen bide arrakastatsuak. Baina ulertzen ote dugu benetan "nordiko" hitzaren esanahia? Gardentasun kalbinista, minimalismo soila, erabilgarria bada ederra dela, apaingarriei uko egin behar zaiela... Irudiz gainezkatutako gure kultura katolikoaren kontrakoa den oro, alegia. Bolumenei begiratu beharrean espazio hutsei erreparatu eta hutsuneak habitagarri eta isiluneak pentsagarri bihurtzea bada nordiko izatea, esan liteke baietz, Xabier Zeberioaren honek fiordoan egin duela bere pausaldiko habia.

Habiarik gabe ez baitago abiatzerik. Eta zenbat eta goxoagoa habia, orduan eta adierazgarriagoa hegaldia."

Harkaitz Cano Pauseri buruz



TURISMO-JARDUERAK

Erleak, funtzioa eta ezti. Ezti dastaketa

Zalain jatatxeko aparkalekua 18:00 - Informazioa eta erreserbak: hbmugitz@gmail.com

Katanga Dub

Como cosa rara

«Katanga dub beste lurzoru batzuetatik migratzen eta elikatzen diren sustraien ahotsa da, munduko sonoritateekin hitz egiteko».

Katanga dub Iruñean kokatutako musika-taldea da, eta Kolonbiako Karibeko eta Euskal Herriko soinu-lurraldeak uztartzen ditu, magia, festa eta gozamenak lotzen dituzten estetikan topaketa sinestezinak erakusteko. 2019ko maiatzean eman zion hasiera ibilbideari, eta, geroztik, kontzertuak eman ditu Nafarroan, Euskal Herrian eta Frantzian.

Zarys Falcon

Mariaren Mendietatik dator, Kolonbiako Karibeko lurraldetik; "bailes cantaos" delakoa sortu zuen, eta ahotsak arbasoen tradizioa irudikatzen du, cumbia dantzatzekoa. Opera-abeslaria, eszena-sortzailea, per-

formerra eta konpositorea da, eta haren ibilbidean nabarmentzekoa da interpretazioaren benekotasuna. Horrela, munduko hainbat eszenatokitan eta erbestean birsortzeko aukera izan du, mendi eta lirikotasunetik.

Iosu Marti

Musika-ekoizlea eta Nafarroako dub mugimenduaren aitzindaria da. Hainbat musika-proiektutan eta ikerketatan parte hartu du Afrikako lurralde ezberdinetan eta Kolonbian; handik elikatzen ditu dub-arekiko eta soinu-fusioekiko grina. Aipatzekoa da zuzeneko nahasketetan eta bisualen sormenean duen talentua, paisaiak eta askotariko soinuak lotzea lortzen baitu.



UZT 21 IGANDEA
19.00

ERRONKARI
Frontoia

**KUL
TUR**
2024

Zirika Zircus

A toda vela

A toda vela antzerki, zirko eta umore ikuskizuna da. Niko protagonista lo seko geratu da "Augusta Robusta" pirataren liburua irakurtzen. Haren gogokoena da, eta ehun aldiz baino gehiagotan irakurri du jada.

Lo hartu eta berehala, ametsetan, gogokeneko liburuko pertsonaiekin elkar-tu eta haiekin bidaia egiten hasiko da.

Goazen! Ez dezagun denbora gehiago galdu, altxatu belak! Arraun horiek ez daitezela gelditu!

Pirata berezien bidaiaren helburuak dira inoiz aurkitu ez diren altxorrak aurkitzea eta gizarte pirata zintzoagoa, berdintasunezkoagoa, anitza eta aurreiritzirik gabekoa eraikitzea.

Lortuko ote dute? Publikoak lagundu beharko die...

Gidoia eta zuzendaritza: Zirika Zirkus

Augusta Robusta pirata: Iraia Salbide Garzia

Jon Hirubegi pirata: Luis Lainez Taboada

Eneka Lapeka pirata: Ainhoa Juaniz Ezpeleta

Jantziak eta eszenografia: Erabili



The Taverners

The Taverners-ez hitz egitea festaz eta dantzaz hitz egitea da.

Biolina, mandolina, kontrabaxua, akordeoia, gaita, ahotsa, gitarra eta bodhran eta perkusioak zelta eta irlandar musikaren sustraieetatik hartzen dituzten osagaien nahasketa heterogeneoaren oinarria dira, country eta estatuko folk

ukituekin hornituta. Errepertorio gehiena beraiena da, eta beste artista batzuen zertzelada batzuk ditu, aipatu estiloak bisitatzeko modura egokituak.

2015ean sortu zuten taldea Burgosen, eta, geroztik, bost burgostar horiek, Alister eskoziarra aurrean dutela, erabat jotzen aritu dira.



Janus Lester

Ez gaitzala loak harrapatu

Jokin Pinatxok pentsalari askearen profila du: sortzailea, dibertigarria, asmo handikoa arlo artistikoan, lasaia eta atsegina arlo pertsonalean. Beratik iritsi zaigu ahots ezohiko eta bereziarekin eta erritmo sinkopatuaren amalgamarekin, arima beltza, elektronikoa edo funka, 80ko edo 90eko hamarkadako dantzaren oinordekoak, baina moldaketa guztiz originalak eta garaikideak egin.

Janus Lester musika-bidaia bat da, eta kapitainaren txanoarekin eta banda handiarekin itsasontzi bateko dantza-pistan jarriko da gure protagonista, ispilu-bolekin, led argiekin eta argi zenitalarekin, musika-portuetan geratzeko eta honako hauek bezalako lagunak bisitatzeko: Daft Punk, Arcade Fire, Arctic Monkeys, Tony Manero, Cher, Sam Cooke, Morgan edo

Nil Rodgers. Soinu-banda horretan, adin guztietako publikoak sartzen dira, Mediterraneoan barrena egiten diren gurutzaldi luze eta dibertigarri horietan bezala, portura iristean festara ateraz. "Ate birakariak" hurrengo urratsa izan da. EP hori zuzenean grabatu dute Dabadaba aretoan. Horrela, bere abestietako batzuk berrikusiko dituzte formatu akustikoagoan Joseba Irazokiren, Gartxoten edo hari laukote baten kolaborazioekin. Orain, biran dabil, eta 60 kontzertu baino gehiago eman ditu lehen urtean.

KIDEAK:

Jokin Pinatxo

Garazi Esnaola: teklatura

Mattin Arbelaiz: bateria

Julen Suarez: tronpeta

Andoni Arriola: tronboia

Ane Bastida: baxua

Javier Echarri: gitarra



Bazzkun Proiektuak

Eguzkilore, jazz mitológico

Mari, Amalur, Ilargi, Ekhi, Ortzi, Gaueko eta Eguzkilorek... jazz doinuak ematen dute. Eguzkilore eguzki-formako lorea da. Esaten dute gizakiek etxeko ateetan jartzen omen zituztela gaueko izakiengandik babesteko. Izaki horiek, lorea ikustean, orriak kontatzen hasten omen ziren, eta hainbeste zituztenez, gaua hari orriak kentzen igarotzen omen zuten, eguna konturatu gabe iritsi arte. Horrela, ihes egin behar izaten omen zuten azkar ezkutalekuetara, gaizkia egin gabe.

Bazzkun Proiektuak Nafarroako Xabi Olcoz, Bernardo San Martin, Jorge Sanchez eta Jon Zufiaurre musikariak dira. Denak Nafarroako musika-erakundeetan trebatuak eta batez ere jazzarekin zerikusia duten musika-proiektuetan parte hartzen dutenak.

Xabi Olcoz (bateria eta perkusioak) bateria-jazzean aditua da. Irakasle-lanetan aritzen da hainbat musika-eskolatan, eta interpretazio-lana ere egiten du. Serafin Zubirirekin batera aritu da kontzertuetan. Jon Zufiaurre (saxo tenorra) saxofoi jazzean aditua da. Jazz talde ezberdinetan kolaboratzen du, eta Jazzaldian ere parte hartzen du Musikeneko bandarekin batera hainbat ediziotan.

Bernardo San Martinek, egun, Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionalean akonpainamendu, harmonia eta analisi klaseak ematen ditu. Nafarroako generoko musikari onenetako jazz-taldeekin kolaboratzen du, eta La Pamploñesako kolaboratzaile ohikoa da.

Jorge Sanchezen (kontrabaxua) musika-prestakuntza zabalak jazz, flamenkoa eta musika modernoa ditu ardatz. Talde artistiko ezberdinekin kolaboratzen du, eta sustraiko musikekiko kezka nabaria da horiengan.



TURISMO-JARDUERAK

Ibilaldi zirkularra + Etxelekua gaztandegia

Azketa Frontoia: 9.00- 20 €

Informazioa eta izen-ematea: info@orbela-beintza.com



Uzt 28 IGANDEA
12.00

LEKUNBERRI
PLAZA

KUL
TUR
2024

Gaita-Brass

Del origen

Gaita-Brass Artaxoan jaio zen 2007an, musikariek gaita, metala eta perkusioarekin osatutako talde ezberdin bat nahi zutelako.

Taldea bere errepertorio musikala handituz eta instrumentuek eskaintzen dituzten aukeretara egokituz joan da. Helburua gaitaren tradizioari eta kalean duen distira bereizgarriari eustea izan da, eta, era horretan,

normalean egon ohi

ez zen leku, for-

matu eta giroe-
tara eramán

dute. Asmo

horretan,

pertsona

askok,

profe-

siona-

lek zein

afizio-

natuek,

guztiak

lagunak,

beren

aletxoá ja-

rri dute gai-

tak iraun de-

zan eta ez dadin

eboluzionatzeko

gai ez den instrumen-

tu tradizional baten antze-

ra geratu.

Gaita-Brass-en funtsa Nafarroako gaita

bezalako instrumentu hain tradizional batentzako eszenatoki berri baten originaltasuna izatea da, bai laguntzen duten instrumentuengatik, bai askotariko musika-estiloen interpretazioarengatik (ohiko jota edo mexikarrak, pop-rocka, boleroak edo mamboa). Era horretan, instrumentua bere soinu-aukeren mugara eramaten dute, musika-giro benetan harrigarriak sortuz.

Hasieran, sei kidek

osaten zuten tal-

dea, eta, egun,

bederatzi iza-

tera iritsi

dira. Ho-

rri esker,

izugarri

iraba-

zi dute

musi-

karen

sonori-

tatean

eta ka-

litatean.

Hazkun-

de hori de-

la-eta, Mai-

sonnave Hotelak

San Ferminetan

antolatutako "Musika

kalean" lehiaketan lehen

saria jaso du.



ABU

ABU 2 OSTIRALA
21.00

OTSAGABIA
BLANKOA PLAZA

**KUL
TUR**
2024

Travellin' Brothers

Aniversary Tour

European Blues Challenge irabazi zuten 2015ean, Bruselan (Europako talde one-na); 20 urte, hamar disko eta 1.200 kontzertu baino gehiago. Travellin' Brothers taldea Europako blues eszenako talde errespetatuenetako bat da. 15 herrialde baino gehiagotan egindako biraren ondoren, Txinara lehen aldiz egindako bisita barne, aurten 20. urteurrena ospatuko dute bira oso berezi batekin. Otsagabian taldearen benetako esentzia den musika-formazioarekin izango dira: baxua, gitarra, bateria, pianoa, saxoa, ahotsa eta

bi korista. Konboa jatorrizko eraketan. Jarrera, energia eta konplizitatea egoera puruan. Formatu horrekin munduan zehar bidaiatu dute, era guztietako klubak bisitatu dituzte, eta ehunka eszenatoki zapaldu dituzte.

KIDEAK:

Jon Careaga – ahots bakarlaria

Aitor Cañibano – gitarra & koruak

Eneko Cañibano - baxua

Isi Redondo – perkusioa

Alain Sancho – saxoa & koruak

Mikel Azpiroz – teklatuak



Alejo

Diamantes

Alejo Huerta (Tutera, 1992) musika-munduan txikitatik hasi zen.

Bederatzi urterekin saxofoia ikasten hasi zen kontserbatorioan; hamabi urte zituela lehen gitarra izan zuen, eta, handik gutxira, lehen abestiak idazten hasi zen. Nerabezaroan honako hauen eragina izan zuen: Nafarroako rock-ean Koma, Marea, Tahúres Zurdos edota Barricada; edota estatuko taldeen artean, Extremoduero, Rosendo edo Platero y Tú. Talde horiek entzun ondoren, nazioarteko klasikoak eta, batez ere, rock anglosaxoia izan zituen bere espiritu rockeroaren lagun.

Urte goiztiar horietan, Alejok bere lehen taldea sortu zuen, "Malataos",

eta, ondoren, "Artea" etorri zen.

Bartzelonara joan zen musikari gisa prestakuntza jasotzen jarraitzeko, eta han hainbat urtez bizi ondoren, Tuterara itzuli zen Con X de Banjo taldeari forma emateko.

Alejok gizatxar eta poetikoaren arteko literatura-mundua gehitu zien letrei, erreferentzia askorekin (baita musikalak ere), tartean, bluesman beltz zaharrenak.

Ibilbide hori amaitu eta, egun, bakarkako etapan aurkitzen da; La fiesta era para otros lana estreinatuko du lehendabizi, eta, ondoren, Diamantes etorriko da, leinu-jatorriko bigarren lana, rock soil eta erresilientearekin tartekatua; aldarreak jorratzen dituzten letrako abesti berriak.



Qabalum - Dantza garaikidea

Todo este ruido

Obra hau bi interpreterentzat –eta dron batentzat– egina da, eta argiaren kantua bezala osatzen da. Forma emateko, denbora zeharkatzen duen materia gisa irudikatutako argia. Garaikidetasunaren irudiekiko liluratik sortu da, fisikaren misterioei, jatorriei, zeruari eta etorkizunari buruzko mitoak sortzen dituen arima primitiboari begirada zahar bat emanez, baina ez dibulgaziozko asmoarekin, arteen planoaz bestelako maila batean dagoen ezagutza azaltzeko, baizik eta helburu poetikoarekin, herentzia hori hartu eta gorpuzteko xedearekin. Lan honek zientzia-fikzioaren iruditeria, komikiaren narrazio zatikatu eta fotografiko indartsuak, CGIren eremua eta efektu berezietz gain,

gorputza materiaren denbora-egitura gisa irudikatzen duen mistizismo esentzialista ere biltzen du.

QABALUM dantza garaikideko talde bat da, 2020an Iruñean sortua, eta sorkuntzan eta interpretazioan, irakaskuntzan eta kultura-bitartekaritzan aritzen da. Lucia Burguetek eta Diego Pazók osatzen dute. Haien lanak Espainia osoko jaialdi eta antzokietan ez ezik, nazioartean ere erakutsi dira, eta hainbat sari eta bestelako errekonozimenduak eskuratu dituzte. Sorkuntza- eta pedagogia-lana taldean egiteaz gain, Diegok eta Luciak beren interprete-karrerak burutzen dituzte aldi berean, honako hauek bezalako koreografo eta konpainiekin: Daniel Abreu, Jesus Rubio, Led Silhouette, Antonio Ruz, Proyecto Larrua edo Laida Aldaz.



TURISMO-JARDUERAK

Herria bisitatzea + taloak dastatzea

Jaime Urrutia 20 · 17.00 · 5 €

Informazioa eta izen-ematea: baztantours@gmail.com

Txori Zuri Dantza Taldea

Txori Zuri Dantza Taldea 1979an sortu zuen herriko gazte talde batek, euskal dantzak eta kultura herrikoia mantentzeko eta sustatzeko asmoarekin. Maiordomoen dantza berreskuratzeaz, Berriozarko landa-inauteriak asmatzeaz eta herriko hainbat ospakizunetan (Olentzero, Jaiak eta Berriozarko Eguna) aritzeaz arduratzen da.

Taldeak irteera ugari egin ditu hainbat lekutara; tartean, Ibiza, Vielha, Gascuña, Marinaleda, Galizia eta Ampurias. Hala ere, emanaldiak eskaini ditu foru-geografia osoan barrena, Dantzari Egune-

tan parte hartzen du, eta uztailaren 6an ere bai Iruñeko Foruen plazan 1980tik gaur arte etengabe. Txori Zuri Dantza Taldeak, orobat, herriko beste talde batzuen urteurrenean parte hartu du; esate baterako, Berriozarko Doinua Musika Bandaren, Erraldoien Konpartsaren edo Bizkargain Fanfarrearen urteurrenetan. Horrez gain, ikastaroak ematen dituzte eta emanaldiak ezkontzetan, omenaldietan eta beste hainbat ekitalditan.

Gaur egun, 15-20 pertsona inguruk hartzen dute parte modu aktiboan taldean.



ABU 4 IGANDEA
21.00

LOS ARCOS
EL COSO PLAZA

**KUL
TUR**
2024

Elena Setién

Moonlit Reveries

Goi-mailako bi karrera ditu, biolin klasi-koarena eta kantu modernoaren kantu eta pedagogiarena, eta kantu modernoaren masterra ere bai. Musika klasi-koa ikasi zuen Susan Collierren eskutik Ingalaterrako Surreyko Unibertsitatean

eta musika modernoa Etta Cameronekin Kopenhageko (Danimarka) Rytmsk Musikkonservatorium zentroan. Sormen-ibilbidean, Elenak bederatzi lan diskografiko argitaratu ditu duo edo bate-rako lidergoan zein bakarka, eta jazzetik poperako bideak egiten dituzte, hainbat konborekin. Azken bi diskoak Chicagoko Thrill Jockey diskoetxeak argitaratu ditu. Elena Setienek Danimarkako Arteen Ministerioaren nahiz Eusko Jaurlaritzako Musika Bulegoaren sariak eta laguntzak jaso ditu. Era berean, nazioarteko jaialdietan parte hartu du; hala nola, Copenhagen Jazz Festival, Ottawa Jazz Festival, Rochester Jazz Festival, Berlin Jazz Festival, Donostiako Jazzaldia, Primavera Sound edo Madrilgo Arte Sakratuaren Nazioarteko Jaialdia.



Mago Hodei

El arte de sorprenderte

Hodeiren azken lau ikuskizunetako ideia onenak zerbait paregabea lortzeko batu dira, magoen dilemari buruz hitz egingo den ikuskizuna. Liluratzen dute? Edo engainatzen dute?

Inpaktu handiko ekoi-zpena, emanaldi landuekin, ilusio handiekin eta jolas originalekin. Hodei Magoaren umore tradizionalak, haren laguntzailearen presentzia eszenikoarekin batera, publikoa harrapatzea lortuko

du ordubetetik gorako tartean. Proposamena erritmo-aldaketez, sorpresez eta soinu-banda landu batez beteta egongo da, eta azken horrek ikuskizunaren amaieran denak abesten irtetea bultzatuko du.

Magian dena ikusi zenuela uste bazenuen, hori "El arte de sorprenderte" ikusi ez duzulako da.

Hodei Domingo magoa, ilusionista, aktorea, aurkezlea eta showman-a da. 2014an sortu zuen Mago Hodei Magoa konpainia, bere ikuskizunak sortu, zuzendu eta ekoizteko.



ABU 10 LARUNBATA MENDIGORRIA

20.00 FORUEN PLAZA

KUL
TUR
2024

Erel y Kuñi

Erel y Kuñi 2018an sortutako rap bikote nafarra da. Rap klasikoa (Erel) eta melodien (Kuñi) nahasketa antzeko bat egiten dute. Rap esentzia inoiz alde batera utzi gabe, berrikuntza eta bakarrak eta originalak izatea bilatzen dute. Haien marka bereizgarrienetako bat da genero ezberdinetako artistekin batera proiektuak egiteko duten gaitasuna.

Nahiz eta gazteak izan, ehunka proiektu eta ekitaldi egin dituzte. Lankidetzan aritu dira MDR Madurga, Eksa edo Jimena

bezalako hiri-artistekin eta Aarón Romero edo Angel Ocray bezalako beste genero batzuetako artistekin.

Kontzertuak eman dituzte Nafarroako Holika eta Iruña Rock jaialdietan edo Totem Aretoan. Foru-komunitatetik kanpo, berriz, Murtzian, Vallecasen edo Zaragozan aritu dira.


Haien proiektuak plataforma askotara igota daude; tartean, Youtube edo Spotify, eta 100.000 bisita baino gehiago dituzte.



TURISMO-JARDUERAK

Bisita gidatua Andelosko erromatar hirira

Andelosko Arkeologia Museoa · 11:00, 12:30, 17:00 eta 18:30 · Informazioa eta izen-ematea: www.palaciorealolite.com
Helduak: 5,60 €; Gazte txartela, 65 urtetik gorakoak, 6 eta 13 urte arteko haurrak: 3,25 €; 0 eta 5 urteko haurrak: doan;
Aniztasun funtzionala duten pertsonak: 1 €.



Goxuan Salsa

Urak eginen du bide

Goxua 'n Salsa kultura anitzeko taldea da, Iruñeko saltsakoa, eta Kolonbiako eta Nafarroako musikariek osatzen dute. 70-80ko hamarkadetako salta tradizionalan oinarritzen da, orkestra handiko formatuan, baina euskal kulturaren eragin handia ere badu.

2024an, bigarren diskoa argitaratu du taldeak: "Urak Eginen Du Bide".

Oraingoan, saltsaren bertsioetan beren konposizioak izan dituzte taldearen erreperitorio berrian, eta, saltsaz gain, beste genero latindar batzuetara hurbildu dira, kunbia eta boleroekin.



ABU 16 OSTIRALA
21.00

CORELLA
MARTXOAK 8 PLAZA

**KUL
TUR**
2024

Vandalia Trío

Vandalia Tríok estiloak eta sonoritateak ezagutzeaz, eraldatzeaz eta esperimentatzeaz gozatzen du, musika instrumentala eta fusioaren ikuspegi propioa sortzeko. Prestakuntza akademikoa errespetatuz eta jolasa jarrera sortzaile gisa erabiliz, haien konposizioetan musika klasikoaren, jazzaren, flamenkoaren, folkaren edo funkyaren eraginak biltzen dira. Konplizitate eszenikoak, dinamismo instrumentalak, interpretazio-kalitateak eta prestakuntza bereziak - flauta, biolina, pianoa eta kontrabaxua - bidaia emozionala harmonizatzen dute haien GEN diskoaren (2020) inguruan eta hurrengo albumaren aurrerapenetan.

Vandalia Tríok estatu osoko ziklo kulturalen eta jaialdien programazioan parte hartu du. 2020an GEN lehen diskoa argitaratu zuten, eta musika klasikoko album onenaren saria eskuratu zuen 2021eko +Múscas plataforman, eta musika klasikoko album onenaren finalistak izan ziren urte bereko MIN Sarietan. Gainera, taldea irrati- eta telebista-saioetara gonbidatu dute, eta ganbera-musikako hainbat lehiaketatan saritu dute. Proiektu pedagogikoetan ere parte hartzen du, eta Oviedoko Pedagogia eta Ikerketa Performatiboaren eta Musika Sormenaren Nazioarteko III. Kongresuan hizlari gisa parte hartzera gonbidatua izan da. Ildo horretan, dibulgazio pedagogikoko kontzertuak eman dituzte Espainiako hainbat kontserbatoriotan.

KIDEAK:

Pablo Estebanez Blanco – kontrabaxua

Fernando García Calvo – biolina, pianoa eta teklatuak

Irene Jimenez Lizcano – zeharkako txirula

Ignacio Ampurdanes (Kolaborazioa) – bateria



Led Silhouette

Los perros

"Los Perros" ikuskizunak errepikapenaren trantzetik lilurara bidaiatzen du, irudiak segidan jarritz. Atzokotik lapurtutako eta biharrera botatako irudiak, oraingoak eta iraganetik zikindutakoak, plastika garaikideetik forma atabikora, lurtarerra, denboren eta hizkuntzan etengabeko gurutzetan.

"Gure munduko eta gure garaiko giza harremanen oinarriak desegonkortzen dituen mundu-mailako krisi baten eraginpean izanik, Los Perros-ek erresistentzia-egoera bat lortzea proposatzen du, dantzatzeko duten txakurrak bezala, zaunka egiten duten txakurrak bezala, dantza egin eta zaunka egin, aurrera joateko dantza egin, aldatzeko dantza egin. Eta aldatu iraganean jarrita dagoen begi batekin, bere forma eta adarrekin, jatorrizkoaren eskutik, eta,

horrela, lortu, borrokatu eta bat egin egungo egoera berriarekin, korrika egin eta eskuetatik ihes egiten baitigu. Eta hori lortzeko korri egiten dugu, biziraupenerako etengabeko borrokan, gure belau-naldiaren nortasuna etengabe bilatuz.

Pasio-dantza honek errepikapenean eta katarsian aurkitzen du bere zentzurik garbiena: dantza egin akitu arte, zaunka egin abaildu arte, bizi akitu arte. Norberak bere burua aurkitzeko besteari begiratzen dion gizonaren kontakizuna.

Bi gizon besarkatuta.

Dantza egiten duten bi gizon, harik eta dena amaitu eta berriro hasi arte".

Led Silhouette Martxel Rodriguez eta Jon Lopez dira.



ABU 18 IGANDEA
19.00

UNTZUE
FRONTOIA

KUL
TUR
2024

DanTxaldi Dantza Taldea

DanTXaldi dantza-taldearen ibilbidea 2022ko irailean hasi zen. Dantzarako gogo eta grina handia dugun gazte taldea gara. Etengabe ikasten ari den taldea, denbora gutxian izugarri hazi dena Txantrea auzotik jasotako laguntza eta berotasunari esker. Talde hau sortu eta egin dugu taldea osatzen dugun dantzari bakoitzak jarritako gogoari esker, eta horixe erakusten ahalegintzen gara emaldi eta plaza bakoitzean. Taldea harro dago jatorriaz, eta etorkizunera dantzan

eta ikasten jarraitzeko gogoz eta grinaz begiratzen dugu.

Errepertorioa

Ablitasgo Plegua

Makila-dantza Zuberoa

Lesaka

Matelota

Tuterako Alde Zaharra

Otsagabia



Ana Crismán

Arpa Flamenca

Ana Crisman harpa flamenkoa interpretatzen eta konposatzen duen lehen artista bakarra da munduan.

Unibertso flamenkoan figura berri baten sorrera da arpaora; artista harpa baten bidez adieraziko da genero honetan lehen aldiz.

Arpa Jonda ikuskizuna estreinatu zuen New Yorken 2019an, eta, ondoren, hainbat bira egin ditu Estatuan, Europan eta Amerikan. Horietan eszenatokia partekatuko du Jorge Pardo, Poveda, Canales eta Dorantes bezalako artistekin, beste askoren artean.

Ana Crismanen eskuetan, instrumentua harpa moldakor, erritmiko eta batzuetan perkusibo bilakatuko da lehen aldiz, eta hizkuntza, diskurtso eta kode flamenkoak erabiliko ditu, generoaren estilo guztiak adierazteko gai direnak.

Txikitatik bizi izan zuen Jerez jaioterriko flamenkoa, flamenkoaren lurralde nagusia izanik. La Plazuelako eta San Miguel auzoko musika (Lola Flores jaio zen tokiak) lagun izan zituen haurtzaro osoan zehar, eta arte horren kutsua izan zuen jaio zenetik. Cerrofuerte kalea (Paquera de Jerez jaio zen kalea) haren gaztaroko urteen eta flamenkoarekiko maitasunaren lekuko izan zen. Los Cernícalos peña flamenkoa eta "La Bulería" peña Mariniguez kanean gertu zituen, eta maiz joaten zen flamenkoa entzutera, musika hori beti maite izan duelako. Halaber, Astoria zinemako ostiral flamenko zaharrak, buleriaren festa zezen-plazan, flamenkoaren

urteroko jaialdia, Jasokundeko Plazako kontzertuak, peñen zikloak, azoka, Gabon flamenkoak, gitarra eta kanta lehiaketak... Jerezko hitzorduak dira, eta bera beti horietan izaten zen, Jerezko kaleetan bat batean sortzen den flamenkoa kontuan hartu gabe, denbora geldiaraziz... Ateak itxita egiten ziren jaiak, Jerezko berezko kanta, zeharkatzen duena eta etengabeko inspirazio-iturria dena...



Korrontzi

Korrontzi musika tradizionaleko (Euskal Herria) banda Agus Barandiaranek sortu zuen 2004. urtean. Euskal Herriko musika folklorikoko soinu tradizionalak itxura garaikidearekin lotzen ditu, betiere trikitixan (euskal akordeoi diatonikoa) oinarritutako musikaren ikuspegitik, instrumentu modernoagoak lagun dituela.

Korrontzik hamabi album argitaratu ditu hogeitauko ibilbidean zehar, eta mundu osoan zehar bidaiatu du bere kultura, hizkuntza, dantza eta musikarekin. Modu horretan, honako herrialde hauetan izan da: Kanada, Eslovenia, Ingalaterra, India, Maroko, Alemania, Estatu Batuak, Errumania, Frantzia, Cabo Verde, Irlanda, Brasil, Finlandia, Malasia, Grezia, Belgika, Txekiar Errepublika, Italia, Reunión Uharteak, Portugal... Horrela, euskal tradizioaren erakusle bihurtu da mundu osoko musika-jaialdietan, eta txalo zaparrada eta laudorio handiak jaso ditu beti. Sari eta aipamen ugari jaso ditu taldeak;

esate baterako, "WOMEX official selection" 2014an eta 2019an, "World Music Charts" edo "Europako Banda Onena, Eurofolk" 2009an, besteak beste.

Laburbilduz, Korrontzi euskal musika talde bat da, eta ez du inor axolagabe uzten; izan ere, bere indar eta energiarekin soinu zaharretatik hasi eta folkaren joera berrietara bitarte transmititzeko gai da ikuspegi bakar eta aurrerakoiarekin.

TALDEA:

Agus Barandiaran: trikitixak eta ahots nagusia

Ander Hurtado de Saratxo: perkusioak eta bateria

Kike Mora: kontrabaxua, baxu elektrikoa eta koruak

Alberto Rodriguez: gitarra, mandolina, mandolina oktabatua eta koruak

Lara Mitxelena & Olatz Arca: txalaparta eta koruak

Dantzariak

Cesar Ibarretxe: soinu-teknikaria



TURISMO-JARDUERAK

Inguruko etxaldeak eta bordak ezagutzeko bisita

Zaborrate baserria eta borda

Abuztuak 24 · 11.55ean · Bus geltokia · 30€ / 12,50€ (-12 urte)

Etxalderako bisita: dastaketa gaztandegian eta bazkaria

Informazio gehiago eta erreserbak: queseriaaldaia.net

Basabere baserri-eskola

Abuztuak 24 · 11.00etan · Basabere · 38€ / 25€ (haurrak)

Animalien etxalderako bisita eta harraparien hegaldiak +

Basabere pintxoak + ludoteka + bazkaria

Basabere baserri-eskola

Abuztuak 24 · 18.00etan · Basabere · 15€ / 11€ (haurrak)

Animalien etxalderako bisita eta harraparien hegaldiak +

Basabere pintxoak

Informazio gehiago eta erreserbak: info@basabere.com

Leyre, música y espiritualidad

Leire mugarri berezia da Nafarroan. Foru Komunitateko monumentu erromaniko nagusia izateaz gain, penintsulako multzo interesgarrienetako bat da. Paraje natural oso ederrean aurkitzen da, eta monasterioko espazioek ematen duten betetasun-sentsazioa nabarmentzen laguntzen du.

Leiren, monje beneditarren komunitate bat bizi da, eta Europako ondare kulturalaren harribitxietako bat bizirik mantentzen du; hau da, kantu gregorianoa, gizateariaren ondare kultural eta mendeabaldeko musikaren oinarri izendatua.

Kultur 2024an, kultura adierazteko modu hau ezagutzera gonbidatzen zaituztegu,

testuingururik ederrenean, liturgiarekin lotuta, eta espiritualtasuna eta sosegua sentitzera gonbidatzen duen espazio batean.

Leiren, gainera, tribuna-organo bikain bat dago, kantuaren osagarri, eta Jose Luis Echechipia Leireko organista titularraren eskutik entzun ahal izango da. Echechipia musikako profesional ospetsua da. Normalean, igandeetan eta jaietan jotzen du, ospakizun erlijiosoen aurreko entzunaldietan nahiz ospakizunetan bertan, eta urteko liturgia-gaiarekin bat datorren organo sakratuko errepertorioa erabiltzen du.



Miguel Jiménez

Resiliente

“Resiliente” izena du Miguel Jimenezek aurreko kantari gisa atera duen lehen albumak, ematen diguna iraunkor bat, organismo bat eta arima mutante bat dela adierazteko kontrako guztiaren aurrean babesak zutik jartzean.

Miguel Jimenezek flamenkoaren paloak ondo menderatzen ditu: alegriak, sigiriak, soleá, tangilloak eta buleriak.

Diskoa flamenkoaren jatorrian, tradizioan eta kulturen oinarritzen da.

Eszenatokietan duen esperientzia profesionala jaialdi ezberdinetan hasi zen, Flamenko on Fire jaialdiaren azken edizioa barne. Siroco-rekin, Jesus Carbonellekin batera, jauzi kualitatiboa emango du bere ibilbidean. “El Tiempo” izeneko lehen diskoan, Jose Maria Cortina, Angye Bao, Pepe Bao, Luis Dulzaides, Josep Salvador edo Los Cherokee bezalako artista handiek hartuko dute parte.

Halaber, eszenatokietan aritu da Miguel Bosé, Carlinhos Brown edo Café Quijano bezalako artistekin. Flamenko klasikoko perkusionista gisa prestakuntza jaso du, eta Jose Parra, Enrique “El Piculabe”, Jeronimo Maya edo Kelian Jimenez bezalako artistekin egin du lan.

Ondoren, kantari, gitarrista eta perkusionista bezala lan egiten hasiko da Iruñeko

“Cuarto Corradillos y la Bajañi” Flamenko Eskolan.

Flamenko-kantari bezala, honako hauekin partekatu ditu eszenatokiak: Jeronimo Maya, Juan Ramirez, Belen Lopez, Eva “La Lagartija”, Paloma Fantova, Farruquito, Jose Parra, Kelian Jimenez, Isaac de los Reyes, Saray “La Pitita” eta beste artista asko.



Fyra

Edición limitada

"EDICIÓN LIMITADA-n" FYRaren EP berriko abestiak jasotzen dira, eta, bertan, indie akustikoagoa den musikan dituen sustraiak osagai hiritar eta elektroniko berrieekin konbinatzen dira, soinu freskoa eta paregabea lortuz.

Fyra Iñigo Vidaurreren izen artistikoa da, Iruñeko musikari gaztearena. Gaur egun, Bartzelonan bizi da, eta estatuan Rusowsky edo Ralphie Choo bezalako artistek zuzentzen duten indie soinu elektroniko berriaren ordezkaria da.

2020an '40tena days' lanarekin estreinatu zen, pandemiaren bidez sortutako lehen singlea, eta, ondoren, 'Homemade Hits' lehen albuma argitaratu zuen 2023ko urtearen hasiera aldera. Garai hartan, John Mayer edo Mac Demarco bezalako artisten eragina zuen, eta haren sonoritatea pop folketik eta musika tradizionaletik hurbilago zegoen. Ondoren, Fyrak bere norabide estilistikoa aldatu zuen, eta 'A nadie como yo' argitaratu zuen Jovedryrekin batera. Hit elektroniko, pop eta alternatiboa, Spotifyren zerrenda ofizialetan sartuko dena. Jarraian, 'Otro Planeta' atera zuen Niko Urizekin batera, melodikoagoa, eta, azkenik, 'DROTOP', "Edición limitada-ren" aurrerapena, 2024ko udaberrian argitaratu berria. Bertan, Sen Senra edo CA7RIEL bezalako izenak agertuko dira Fyraren musika-erreferentzia berrien artean.



TURISMO-JARDUERAK



"Jesus Aranda" olio ekologiko eta biodinamikoaren dastaketa

Abuztuak 31 - 19:00etan - Jesusen Bihotza kalea 6, behea - 15€ eta botila bat olio opari
Informazioa eta izen-ematea: info@ecologicosaranda.com

IRA

Ibil Bedi

Goldea

“Goldeak lurra iraultzen du, aurreko landaketatik geratzen den guztia erauzten baitu, berria eman dezan. Ekintza horrekin bakarrik beste landaketa bat egingo da”. Goldea Ibil Bedi taldearen hirugarren lan luzea da, eta 10 abestik osatzen dute. Zuzenekoei zor zaien kalitatea eta garrantzia mantentzeko asmoarekin, taldeak 80 minutuko ikuskizuna sortu zuen, eta, Goldea lehen leerroan jartzen bada ere, ibilbide osoa errepasatuko du. Gainera, esperientzia oso bat sortze aldera, musikak gidatutako argi-diseinua izango du ikuskizunak.

Ibil Bedi Irunberriko, Erriberriko, Zangozako eta Iruñeko bost gaztek osatzen dute. 2019ko ekainean, Berandu Baina Garaiz izeneko lehen diskoa argitaratu

zuten. Urte horren amaiera aldera, berriz, Bide Zuzena – Teilaturantz abesti bikoitza merkaturatu zuten, taldearen bideoklip bakarraz gain. 2021ean, taldearen bigarren lan luzea sortu zen: Beltxarga Beltza, konfinamenduan zehar osatutako hamaika abestirekin. Abestiak maitasunari, zalantzei, sorpresei, galerei eta bizipe nei buruzkoak dira. Azken urteetan, 100 kontzertu baino gehiago eman dituzte hainbat areto, ekimen eta antzokitan.

MUSIKARIAK:

Musikariak: **Amets Aranguren Arrieta, Eder Escalera Llorente, Javier Larrañeta Iribarren, Ibai Osinaga Gogorcena** eta **Areta Senosiain Elorza**

TEKNIKARIAK:

Martxel Arkarazo (soinua) eta **Mikel Perez** (argia)



IRA 7 LARUNBATA TUDELA

ALFONTSO I BORROKALARIA PLAZA

20.30

KULTUR
2024

HOFE x 4:40

Amorrúa

HOFE x 4:40 deitzen da Igotz Mendez (Hofe) abeslaria eta Xabier Lafuente eta Marcos Galech (4:40) ekoizleak biltzen dituen proiektua. Hiru gazte horien arteko lotura musikal sendoa nahiko berria bada ere, hirukoteak bost urte baino gehiago daramatza Iruñeko eszenan lan egiten, aurretik musikan aritu baitziren Nib-bass aurreko taldearekin, eta Euskal Herriko underground eszenan ospe handia lortu zuten.

"Amorrúa" HOFE x 4:40 taldearen lana da, argitaratu berria, Oso Polita etxearen eskutik. Batera egindako lehen mixtapea, elektronikak markatua eta trap-etik new wave edo synth pop-era bitarteko askotariko musika-generoen eragina duena. Abesti itsaskorrek eta dantzatzekoak eskaintzen ditu, jarreraz beteriko letrak, eta zinemarako erreferentzia artistikoen garrantzia azpimarratzen dute, gai bakoitzean eragina izanik, hori guztia estetika bisuala zein soinuakoa zehatz-mehatz zainduta.



TURISMO-JARDUERAK

Nafarroako ardo eta gazten dastaketa 18 grados dendarekin

Irailak 7, larunbata, 19.00etan. • TUDELA • 18 Grados (Verjas kalea 16) • 18€

Informazioa eta izen-ematea: info@18grados.com

Anari

Giza Zarata

Anari Alberdi (Azkoitia, 1970) euskal musikaren panoramako ahots pertsonaletarikoa izatera iritsi da, 1996an "Anari" lehen diskoa argitaratu zuenetik. Geroztik, "Habiak", "Zebra", "Irla Izan", "Zure aurrekari penalak" eta "Epilogo bat" grabatu ditu.

"Giza Zarata" Anariren zazpigarren lan luzea da, Cadizko Puerto Santa Mariako PACO LOCO estudioan grabatu dute 2024ko urtearen hasiera aldera, eta Joaquín Pascualekin batera moldatua eta ekoiztua izan da.

Hasieratik kritika espezializatuak haren musika-ibilbidea Euskal Herriko ahots garrantzitsuenen artean kokatu badu ere, gaur egun, hitzen balio poetikoa eta literarioaren ikuspegitik, euskal literaturako leku nabarmen batean kokatzen dute batzuek.

Duela gutxi lehen bi liburuak argitaratu ditu:

Gari eta goroldiozko, 2022, SUSA (nobela)

Demoliciones controladas 2023, PE-PITAS, abestien letren itzulpenak.

Anari honako hauek osatzen dute:

Anari Alberdi, ahotsa eta gitarra

Xabier Olazabal, baxua

Ander Mujika, gitarra elektrikoa eta ahotsa

Mariano Hurtado, teklatuak

Xabi Etcheberry, gitarra, teklatuak eta ahotsa

Mikel Txopeitia, bateria



IRA 13 OSTIRALA
20.00

ARGUEDAS
TINGLADUKO PLAZA

**KUL
TUR**
2024

Jesús Carbonell

Guitarra del herrero

Diskoa jatorrian oinarritzen da, flamenkoaren tradizioan eta kulturean. Flamenko garbi eta kontserbadoretik flamenko gaurkotuago baterako trantsizio eta bilakaerarako ibilbidea egiten du, esentzia eta purutasuna galdu gabe. Flamenkoa bizitzeko modu bat dela trans-

mititzen du, idatzi gabeko "hizkuntza" bat, belaunaldiz belaunaldi, gurasoetatik seme-alabetara, aitona-amonetatik bilobetara transmititzen dena, denboraren poderioz ezabatu ezin den arrastoa utziz. Flamenkoaren ikuspegitik, bizitzako musketan barrena egiten den "bidaia" da.

"Gitarraren bidez, zer naizen, nola sentitzen naizen, nondik natorren eta norantz joan nahi dudana adierazten dut. Gitarraren bidez, emozioak ateratzen ditut. Nire sentimenduak bideratzen lagundu dit, bizitzako une onenetan zein txarrenetan; halaber, hausnartzen, gelditzen eta gauzak beste ikuspegi batetik ikusten lagundu dit. Bakea eta lasaitasuna gustatzen zaizkit,

bizitzako gauza sinpleez gozatzea eta konposatzeko lasaitasun-espazioak aurkitu ahal izatea. Gitarra

erretiro espiritual eta pertsonalerako beharrezkoa den unea ere bada. Etengabe eta modu iraunkorrean lan egiten dut nire helburuak lortzeko.

Ahaleginduz eta borondatea jarrita, planteatzen diren proiektuak definitzen ditut. Hobe da gauzak

motel egitea; hobe kalitatea kantitatea baino. Nire musikari dagokionean, nire sustraiak, nire tradizio kulturala errespetatzen ditut. Nire konposizioen bitartez, flamenkoarekiko sentitzen dudana intentsitatea pertsona guztiei transmititzen ahalegintzen naiz".



Ortzadar Euskal Folklore Taldea

2023an 130 urte beteko dira Gamazada bezala ezagutzen den gertaera historikoa gertatu zenetik, 1893 eta 1894 urte artean gertatu baitzen. Gertaera historiko hori zela-eta, 1894an, Jose Jarautak (Joselico izenez ezaguna) bertso batzuk egin zituen Monteagudon urte hartan makila-dantzan kantatzeko.

Ondoren, 1978an, Nafarroako Erriberran bi urtez landa-lanean aritu eta gero, Ortzadar taldeak Jose Jarautaren makila-dantza emanaldia birsortzen zuen ikuskizun bat aurkeztu zuen, jatorrizko testua eguneratuta eta testuinguru berriagora egokituta, Ortzadar Euskal

Folklore Elkarteak makila-dantzaren funtzioaren bertsio berri bat egitea planteatuko du, 1978ko testu egokituan oinarrituta eta testu hori egungo errealitatera hurbiltzeko asmoarekin. Emanaldi honetan, musika eta dantza tradizionaleko piezak eta herri-antzerkiko emanaldiak antzeztuko dira.

Moldaketa hori egiteko, Oier Zuñiga antzerki-zuzendari nafarraren laguntza izango da. Bertan, 16 dantzarik, 8 bat musikarik eta 4 eta 8 aktore inguruk parte hartzea aurreikusten da.



TURISMO-JARDUERAK

Ogi-mamiak eta Nafarroako ardo gorria dastatzea Urrutia Etxean

Irailak 14, larunbata, · 10:00etatik 13:30era · Urrutia Etxea · 6€

Informazioa eta izen-ematea: info@casaurrutia.net



Ibrahim Keivo y Gani Mirzo & Band

La ruta de la dignidad

Duintasunaren ibilbidea Ekialde Erdiko eta Mendebaldeko (Iberiar Penintsula) musikak batzeko proiektua da. Armeniako eta Siria Iparraldeko musiketako bi figura esanguratsuenek zuzentzen dute; hots, Gani Mirzo oudistak eta Ibrahim Keivo abeslari eta instrumentalistak.

Gani Mirzo, kurdia jaiotzez eta Bartzelonakoa adopzioz, txikitatik musikak erakarri zuen. Ibilbide musikala bakarlari eta Gani Mirzo Trio bandako kide gisa garatu du.

2022az geroztik, Kurdistango errefuxiatu-eremuetan proiektu artistiko eta kulturekin lankidetzan aritzen den fundazio bat du, eta, bereziki, musika-klaseak

ematen dizkie haur eta helduei.

Ibrahim Keivon 1966an jaio zen Siria iparraldean. Genozidiotik bizirik atera zen armeniar familia bateko semea da, antzinako Siria, Mesopotamia eta Asia Mendebaldearen elkarguneko eskualde batean hazi zen, kulturen nahasketak eskualdeko gizarte aberats eta anitzenetako bat sortu zuen lekuan. Alemanian bizi da eta han lan egiten du, eta maiz hartzen du parte Jordi Savall musikari katalanaren programetan. Haren ahotsa ekialde hurbileneko ahozko kultura tradizionalen zehar egiten den bidaia da, eta our arabiarraren musikarekin laguntzen eta aberasten da.



Jack Diatta & D.J. Kaylf

Kasumaye

Jack Diatta sengaldar musikari profesionala da bere herrialdean, erritmo afrikarretan espezializatua, eta reggearekiko grinak oinarri erritmiko hori duten abestiak konposatzen laguntzen dio. Haren musikak Bob Marley, Peter Tosh, Burning Spears, Alpha Bondy eta Tiken Jah Fakouly-ren eragina du.

Iruñean bizi da, eta, bertan, Kaylf DJ eza gutuko du. Horrela, elkarte bat sortuko dute, eta Jack Diattak konposatutako abestiei forma emango diote.

Kaylf Dj-a Senegalen hasi zen musika ikasten, jatorrizko herrialdean. Musika-estilo guztiak nahasten ditu, abestien ezaugarri ezberdinak kontrolatuz eta musikak pertsonengan duen eragina aztertuz. Oinarri propioen ekoizlea eta sortzai-

lea ere bada.

Jack eta Kaylf Dj-ren arteko sintonia ona diskoan nabari da, giro ona eta "love&peace" protagonistak baitira. Entzuteko musika, dantzatzeko musika, sentitzeko musika.

Nazioen arteko injustiziari, bakeari eta maitasunari buruzko gaiak aurki daitezke "Kasumaye" albumean.



Demodé Quartet

A kupela

Demodé Quarteteko lau pertsonaia bitxik, musika ulertzeko duten modu dibertigarri eta bereziarekin, Demodé A kupela aurkeztuko digute.

Kupela sagardoa gordetzen den upe-la da, eta euskaldunok horren inguruan biltzen gara ospatzeko, edateko, jateko, istorioak kontatzeko eta elkarrekin abesteko. Kupela gure beste grinarekin lotzen badugu, hots, a capela abestearekin, A kupela aterako zaigu. Kontzertu eszeniko honek mundu osoko folklorea barrera egiten du ibilbidea. Alegia, hainbat hizkuntza, genero eta kontinente hartzen dituen kantu-sorta batetik abiatuta, musika-ikuskizun bat sortu dute, eta, bertan, jatorrizko bertsioak a capela interpretatzen dira batez ere, jatorrizko hizkuntzan

eta gure folkloreaki keinuak eginez. Hori guztia ohiko umorearekin eta aurkezten dizkiguten abesti, herrialde edo egileei buruzko teoria zentzugabe eta harrigarriekin nahastuta.

Zuzendaritza: **Patxi Barco**

Musika-zuzendaritza: **Joli Pascualena**

Harmonien eta musika-oinarrien moldaketak:

Iker Huitzi, Santi Romano

Koreografiak: **Karlos Nguema**

Interpretariak: **Iker Huitzi, Joli Pascualena,**

Santi Romano, Karlos Nguema

Jantzien diseinua: **Ikerne Gimenez**

Argien diseinua: **Gorka Jimenez**

Soinu-diseinua: **Josean Olaberri**

Eszenografia: **Jose Manuel Urarte**

Bideoen sortzailea: **Paula Carcamo**

Diseinu grafikoa eta ilustrazioak: **Aitziber Alonso**

Ekoizpen-zuzendaritza: **Silvia Hornos**



Greasy

Kontzertu honetan musikaren historiako abesti onenetako batzuk errepasatuko dira zuzen-zuzenean, formatu honetarako bereziki prestatutako moldaketekin. Soula edo Bluesa bezalako estiloak, baita Rythmn & Bluesa eta Rock & Rolla ere, herritarrek asko ezagutzen dituen abestiak, dantzatzera, abestera eta modan egoten jarraitzen duten melodiez gozatzera bultzatzen dutenak. Adin guztietarako kontzertua da.

Publikoak Amy Winehouse, The Beegees, Michael Jackson, Etta James, Aretha Franklin, James Brown, Pharrell Williams, Chic, The Doobie Brothers, eta abar bezalako artisten abestiak entzun ahal izango ditu.

Musikari profesionalek zuzenean inter-

pretatuko dute GREASY ikuskizuna, eta prestakuntza-alderdia ere jorratuko da; kontzertuan zehar, konpositoreek beren ibilbide bihurgunetsuan bizi izandako hitzorduak, gertaerak eta pasadizoak tartekatuko baitira.

Herritarrentzat ikuskizun oso animatua, interesgarria eta dibertigarria izango da, eta musikaren historiaren eta pertsona askoren bizitzaren parte izango diren abestiak gogoratuko dira.

Greasy hauek osatzen dute:

Judit Aramburu (baxua), Pino Sanbataro (bateria)

Jokin Pallarés (gitarra), Adriana Olmedo (ahotsa)



TURISMO-JARDUERAK



Ibilbidea bizikletaz Euskal Herriko bide berdean barrena

Irailak 28, larunbata, • 16:00etan. • Euskal Herriko Bide Berdea Zuñigan • 45€+BEZa
Informazioa eta izen-ematea: info@urederraebike.com

Basati - Salvaje



Bertizko Jaurerriko Erakusketa-aretoa
2024ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra

Maria Jimenez Moreno (Iruñea, 1978) Arte Ederretan lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta hainbat diziplina eta tailerretan trebatu da. Lana ehun-artearen inguruan garatzen du, femeninoarekin lotutako praktika tradizio-nalak aldarrikatzeko tresna gisa, eta, batzuetan, argazkiak, marrazkiak, zeramika edo instalazioa bezalako beste hizkuntza batzuekin konbinatzen du. Haren hizkuntza plastikoa eta kontzeptuala erre-alismo magikoarekin lotzen da, sentsoriala dena erre-alitatearen pertzepzioaren zati gisa bultzatu eta benetakoa eta imajinatutakoa lotu nahi baititu, lurralde liriko pertsonala landuz.

2006an, artista gazteen Topaketetako Arte plastikoen lehen saria eskuratu zuen, eta 2008an eta 2022an, Nafarroako Gobernuaren arte plastiko eta bisualetarako laguntzak jaso zituen. Hainbat topaketa artistikotan parte hartu du; hala nola, Nafarroako Gobernuaren 948 Merkatuaren II. edizioan 2018an, edo Praxis eta Arte Garaikidearen Testuinguruaren Nazioarteko I. Sinposioan Evoran (Portugal) 2013an, besteak beste. Halaber, hainbat egonaldi artistiko egin ditu; esate baterako, Nautilus egonaldia Lanzaroten 2016an, Donibane Garaziko Itzal Aktiboan jasotako sariari esker, edo MOVIC beka Kordoban 2010ean.

Bakarkako azken erakusketak honako leku hauetan egin ditu: Nafarroako Museoko Kaperan (2023-2024), Zizur Nagusiko Kultur Etxean (2022), Noaingo Kultur Etxean (2014an Larrialdiak lehiaketaren esparruan eta 2021ean), Zangozako Vallasantoro Jauregian (2019) eta Zizur Nagusiko Artea2 Galerian (2016). Espainiako eta Frantziako hainbat lehiaketa eta erakusketa kolektibotan hautatua izan da. El pasillo eta Artamugarriak tal-



de artistikoetako kidea izan da.

Haren obra Nafarroako Museoan, Nafarroako Gobernuako Gazteria Institutuaren bilduman eta bilduma partikularretan ikus daiteke.

Basati- Salvaje erakusketak Nafarroako sorginen ehizaren testuinguru historikora, kulturalera eta sozialera hurbiltzen gaitu. Ehun-lanaren bidez, Basati erakusketaren izenburuarekin nolabait lotuta dauden irudiak, eskulturak, marrazkiak eta brodatuak erakusten dira.

Kontzeptu horretan, euskaraz hitz egiten zuten eta euskal mitologia herri erlijio bezala mantentzen zuten emakumeak aipatzen dira. Gertaerak gertatu ziren lurraldea aipatzen du, orografia menditsu eta malkart-sua medio, bertako basoak, zelaiak eta herri-lurrak horretarako leku aproposak izan baitziren. Naturarekin zuten harreman sozial eta kulturalaz hitz egiten du, pertsona horietako askok sendabelarrak ondo ezagutzen eta komunitatean sendalari eta emagin lanak egiten zituztelako. Emakumeek aurre egin zieten ordenari, emakumeen gorputzaren kontrolari buruzko ezagutza tradizionalekin, baina, jazarpenaren bidez, emakumeei

jakintza enpirikoko ondare bat kendu zieten, belar eta sendabideei zegokienez, ezagutza horiek belaunaldiz belaunaldi jaso baitzituzten, eta, horrela, emakumeak lekuri ez zuen medikuntza profesionala indartu zen.

Proposamen honen helburua da herritarrengana hainbat gertaera, mito, tradizio, legatu, sinesmen eta sineskeria hurbiltzea, irudimen kolektiboan sorginaren irudia eraikitzeke garrantzitsuak izateagatik. Kapitalismoaren garaian hasieran inposatzen ari ziren eta oraindik ere indarrean jarraitzen duten arau sozialekin bat ez zetozen emakume mota jakin batzuk debalatu eta kriminalizatu zituzten. Garai hartako herri-kulturaren aurkako borroka izan zen, auzo-elkartasunean oinarritua, eta botere kolektiboa eraistea eragin zuen, lurrraren pribatizazioa, familia ardatz hierarkiko gisa hartzea eta genero-harremanak menderatzea bultzatuz.





Sorginorratz. Aguja de bruja

Abuztuak 17 · 12.00etan

Intsektu honen euskarazko onomastikarekin eta sorginen munduarekin duen harremanarekin jolas metaforikoa eginez, arropan jartzeko orratz bat egingo dugu, sorgin-orratz itxurako paparreko bat. Material ezberdinak erabiliko dira sorgin garaikidea identifikatzeko moduko bat sortzeko.

Iraupena: 2 ordu

Hizkuntza: gaztelania

Kopurua: gehienez 15 pertsona. 6 urtetik aurrerakoentzat.

Nork emango du: Maria Jimenez Moreno

Bidea egitea

Tailerra · Abuztuak 24 · 10.00etan

Tailer honetan, irteera bat egingo dugu Bertizko Jaurerriko Parke Naturallean barrena, eta zenbait sendabelar ezagutzen ikasiko dugu, haien propietateak eta herri-medikuntza tradizionalan dituzten aplikazioak azaltzearekin batera. Laura Gurbindo Bomba izango dugu gidari, fitoterapian espezializatutako naturopata, ikastaroak ematen esperientzia handia duena.

Iraupena: 4 ordu

Hizkuntza: gaztelania

Kopurua: gehienez 15 pertsona. 6 urtetik aurrerakoentzat.

Nork emango du: Laura Gurbindo Bomba



BERTIZKO JAURERRIAREN ORDUTEGI OROKORRA

LORATEGI BOTANIKOA

10:30etik 14:00era eta 16:00etatik 19:30era

ERAKUSKETA-ARETOA

10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara



Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Reyno de
Navarra



Nafarroa
Erresuma



kultur@navarra.es